

Balorezko proposamenak

Guk proposatzen dugun balioa hurrengoa da: euria egiten duenean aterkina erabiltzen dugu ez bustitzeko, baina normalean ez da helburu hori betetzen. Horregatik, aterki arruntari berrikuntza hauek aplikatu dizkiogu helmugara busti gabe iristeko, hori da gure produktuaren helburua.

Itxuraz aterki normala ematen du, aterki guztien helburua da ez bustitzea baina ez da inoiz lortzen, normalean gerritik bera bustitzen gara. Gure *Tantatto* aterkiarekin berriz, ez litzateke hau gertatuko, mekanismo berri bat ekarriko du; aterkiaren barilei loturik plastiko (umeen karroetan jartzen den plastikoaren bezalakoa) luze bat izango du, horrela inguratu egingo gaitu gorputz osoa estaliz, hala ere, pentsatuta dago leihatila antzeko bat jartzea, arazo barik arnasteko eta hobeto ikusteko.

Traba ez egiteko, heldulekuan egongo den botoi baten bitartez plastikoa igo eta jaitsi egingo da, gainera, materiala arinagoa izango da.



